



***Aretxabaletako
Arau Subsidiarioen berrikuspenaren
10. aldaketa puntuala,
erregaia txikizka hornitzeko instalazioak
ezartzeko baldintzak arautzeko***

HERRITARREK PARTE-HARTZEKO PROGRAMA

2024ko urtarrila

2023 HPNS0001



AURKIBIDEA

| | |
|------------------------------|---|
| 1. Helburua | 3 |
| 2. Arau-esparrua..... | 3 |
| 3. Parte hartzeko gida | 5 |



1. HELBURUA

Herritarren Partaidetzarako Programaren oinarritzko helburua da herritarrek "Aretxabaletako Arau Subsidiarioen berrikuspenaren 10. aldaketa puntualaren" proposamenaren edukia eta irismena ezagutzea, erregai txikizka hornitzeko instalazioen ezarpen-baldintzak arautzeko, eta Udalbatzari horren inguruan duten iritzia jakinaraztea.

Alde horretatik, programaren eginkizuna da parte-hartzearen inguruko helburu espezifiko batzuk betetzen direla bermatzea. Honako hauek dira helburu horiek:

- Informazioa ematea parte hartzeko eskubideaz eta eskubide hori erabiltzeko moduz.
- Informazioa eskuragarri jartzea aldaketa egiten den bitartean.
- Parte hartzeko irekita dauden prozeduraren faseetan oharrak eta iruzkinak egiteko eskubidea aitortzea.
- Parte-hartzea eta informazioa emateko eta interesa duen publikoari ekarpenak egiteko bide eskuragarriak egotea.

Parte-hartzea ahalbidetzen duten elementuak bi mailatakoak dira: lehenik eta behin, lege-araudiak nahitaez bete beharreko ekintzak daude, eta, bigarrenik, parte hartzeko beste ekintza osagarri batzuk daude, are eraginkorrago izan dadin. Bi horiek fase bakoitzaren eduki espezifikoak izango dute, bai material grafikoarekin edo dibulgazio-idatziarekin, bai gizarte-eragileei eta, oro har, publikoari zuzendutako azalpen-ekintzekin, bai balorazioarekin batera egiten diren iritzien eta alegazioen azterketarekin, edo herritarren partaidetza-prozesuaren laburpen-txostena egiteko aurreikuspenarekin.

2. ARAU-ESPARRUA

Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Lurzoruari eta Birgaitzeari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 5.e) artikuluan xedatzen du herritar guztiak dutela eskubidea lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -betearazpeneko edozein tresna prestatzeko eta onartzeko prozeduretan eta horien ingurumen-ebaluazioan parte hartzeko, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak eginez, eta Administrazioetik erantzun arrazoitua jasotzeko, administrazio horren araubide juridikoa eta dagokion prozedura arautzen duen legeriaren arabera.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, 8. artikuluan, parte-hartzearen printzipioa arautzen du. Horrela, hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzera koan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko dela adierazten du.



Aipatutako 2/2006 Legeak 84.4 artikuluan xedatzen duenez, Hirigintzako plana edo tresna egiteko akordioan, edo, hala badagokio, eskumena duen administrazioan izapideak egiteko aurkeztutakoa onartzeko izapidean, berariaz zehaztuko da, batetik, zein neurri eta jarduketa abiarazi behar diren administrazioen arteko koordinazioa sustatzeko eta, bestetik, zein den plana edo tresna egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko izango duten programa.

Era berean, 2/2006 Legearen 108. artikulua plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa arautzen du, eta ezartzen du egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.
- b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.
- c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, 3. artikuluan aipatzen du, halaber, herritarren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean. Artikulu horretan, 2/2006 Legean agertzen diren mekanismoen gain, Herritarren Partaidetzarako Programan parte hartzeko gida bat sartzeko beharra adierazten da. Gida horretan, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak deskribatzen dira, bai eta horien xehetasunak ere, eta, gainera, parte-hartze prozesuaren abiapuntu izango diren edukien laburpena jasotzen da. Gainera, adierazten da Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da.

Azkenik, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluan arautzen du herritarrek nola parte hartu behar duten lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran, eta ezartzen du ezen, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -urreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko dela administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta antolakunderik adierazgarrien iritzia jasoko dela, honako hauei buruz:



- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen ordezkori irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Kontsulta publiko hori egin beharko da arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta arauaren gainean ekarpenak egiten dituztenek iritzia emateko aukera izan dezaten. Horretarako, haien esku jarri beharko dira beharrezkoak diren dokumentuak, argiak eta zehatzak, eta gaiari buruzko iritzia eman ahal izateko behar den informazio guztia bildu beharko dute.

Oraindik aldaketak egiturazkoa edo xehatua izan behar duen argi ez badago ere, egokitze jotzen da programa hori bi kasuetan egitea, Plangintzako Aholku Batzordeari dagokionez, egiturazkoa denean bakarrik egingo da.

3. PARTE HARTZEKO GIDA

Herritarrek parte-hartze programaren faseak, aldaketa puntualaren izapidetzearekin eta haren edukiekin lotutakoak, ondoren zehazten dira:

1.FASEA: Herritarrek parte hartze mekanismoak, aldaketa puntuala hasieran onartu aurretik

- Nahitaz bete beharreko ekintzak:
 - Gomendioa emateko eta aldaketa idazten eta izapidetzen hasteko udal-erabakian, Herritarrek Parte Hartze Programari hau onartuko da, beraz egiteko, izapidetze eta onartzeko prozesuan jarraitu beharrekoa.
 - Herritarrek parte hartze programari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da labur-labur, eta udalaren webgunean zabalduko da.
- Ekintza osagarriak:
 - Kontsulta publiko, Udalaren web atariaren bidez, gutxienez hamabost egun naturalez. Bertan, herritarren eta elkarten iritzia jasoko da: a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak. b) Onartzeko beharra eta egokia. c) Arauaren helburuak. d) Egon daitezkeen bestelako irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.
 - Kontsulta publiko hori herritarrek eta elkarteek iritzia emateko aukera izateko egingo da. Horretarako, beharrezko dokumentuak jarriko dira haien eskura, argiak eta zehatzak izango direnak, eta plangintza aldatzeko ideari buruzko iritzia emateko behar den informazio guztia bilduko da.



- Kontsulta publikoa udaletxeko iragarki-taulan eta gardentasun-atarian argitaratuko da.
- Kontsulta publikoa gauzatzearen ondorioz izandako iritziei buruzko txosten zehatzak, udalaren webgunean eta prozesu horren ondoren egingo den aldaketa puntualaren memorian sartu beharrekoak.

2.FASEA: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntuala hasieran onartu ondoren

- Nahitaez bete beharreko ekintzak:
 - Aldaketa puntuala hasieran onestea eta jendaurrean jartzea legez ezarritako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunderik handiena edo zabalduena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratu eta gero. Udalaren ohiko bideetatik ere emango da epearen berri.
 - Udal teknikariek aldaketa puntuala Udal Plangintzako Aholku Batzordeari aurkeztea, nahitaezko txostena egin dezan (aldaketa egiturazkoa bada bakarrik).
 - Alegazioak jasotzea.
 - Hasierako onespeneraren ondoren jendaurrean jartzearen ondorioz egindako alegazioei buruzko txosten zehatza, behin-behineko onespenerako aurkezten den Aldaketa Puntualaren testu bateratuan sartu beharrekoa.
- Ekintza osagarriak:
 - Azalpen-saio irekia, erredakzio-taldeak eta udal-teknikariek elkarrekin aurkeztua. Udal lokaletan egingo da, Udalak adierazitako ordu eta egunean. Bilera horretan honako hauek azalduko dira: aldaketaren norainokoa eta edukia, dokumentua kontsultatzeko moduak, bilera partikularretarako alde aurreko hitzordua eskatzeko aukera, alegazioak egiteko modua, entregatzeko lekuak eta epeak. Saioaren amaieran galdera-sorta irekia egingo da. Bilkura hori gutxienez jendaurreko epea amaitu baino 15 egun natural lehenago egingo da.

Azalpen-saioa, gutxienez, Udaleko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da, data, lekua eta landuko den gaia ulertu ahal izateko behar den informazioa emanez.
 - Jarraitutako partaidetza-prozesuari buruzko laburpen-txostena, behin-behineko onespenerako (edo behin-betiko onespenerako, egitura-aldaketa ez bada) aurkezten den aldaketa puntualaren testu bateratuan eta udalaren webgunean sartu beharrekoa.

3. FASEA: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntuala behin-behinean onartu ondoren: (soilik egiturazko aldaketa bada)

- Nahitaez bete beharreko ekintzak: Ez dago.
- Ekintza osagarriak: Akordioaren berri ematea udal webgunean.



4. FASEA: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntuala behin betiko onartu ondoren

- Nahitaez bete beharreko ekintzak:
 - Behin betiko onespeneren erabakia eta bere araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunderik handiena edo zabalduena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.
 - Behin-betiko onartutako dokumentua udalaren webgunean argitaratzea.
- Ekintza osagarriak:
 - GAOn argitaratutakoaren publizitatea udalaren ohiko kanaletan: Udalaren iragarki-taula, Udalaren webgunea eta Gardentasun ataria



| FASEAK | HIRIGINTZAKO DOKUMENTUA IZAPIDETZEA | HERRITARREK PARTE-HARTZEKO PROGRAMA |
|--|---|--|
| 1.FASEA | Hasierako Udal akordioa | Herritarrek Parte-Hartze Programaren onartzeko Udal Akordioa |
| | Hirigintza dokumentuaren zirriborroa | Herritarrek Parte-Hartze Programaren eta Kontsulta publikoa zabaltzea |
| | Hasierako onespenerako hirigintza- dokumentua idaztea (iritziei buruzko txostena sartzea) | Kontsulta publikoan jasotako iritziei buruzko txostena |
| 2.FASEA | Hirigintza-dokumentuaren hasierako onespenerari buruzko Udal-erabakia | Erabakia GAOn eta zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratzea |
| | | Hirigintza-dokumentua udalaren webgunean zabaltzea |
| | | Azalpen saioa eta alegazioak aurkezteko epea zabaltzea |
| | | Informazio publikoa |
| | | Udal Plangintzako Aholku Batzordeari azaltzea (egiturazko aldagaketa bada bakarrik) |
| | | Azalpen saioa |
| | | Alegazioak jaso |
| | Jasotako alegazioei buruzko txostena | |
| Beste administrazio batzuek egindako txostenen laburpen-dokumentua | Azalpen-saioan jasotako iritziei buruzko txostena | |
| 3.FASEA (soilik egiturazko aldagaketa bada) | Hirigintza-dokumentua behin-behinean onartzeko udal-erabakia (iritziei, alegazioei eta abarri buruzko txostena sartzea). | Akordioaren zabalkunde a udal webgunean |
| | Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (EAELAB) | |
| 4.FASEA | Hirigintzako dokumentua behin betiko onartzeko udalaren erabakia | Erabakia GAOn eta egunkarietan argitaratzea , bai eta araudia GAOn ere |
| | | Akordioa eta behin betiko hirigintza-dokumentua udalaren web orrian zabaltzea |
| | | Argitaratutakoaren zabalkunde a |